

## MUNITEGI ELORZA, Abel

Justizia sailburuordea  
Eusko Jaurlaritza  
Wellingtongo dukea, 2  
01010 Gasteiz  
Justicia@ej-gv.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 159-160]



Eusko Ikaskuntzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen elkarlanaren ondorioz, Euskararen Normalkuntzarako Legearen XVII. Urteurrena izan genuen aztergai Donostiako Miramar jauregian, eta mintegi horren baitan, *Hizkuntza Eskubideen Babes Jurisdikzionala*-ren paneleko arduradun izendatu ninduten.

Ondorengo lerrootan, aipatutako atalaren baitan esandako guztiaren ondorio nagusiak modu labur batean jasotzen saiatuko naiz. Hasteko, esan beharra daukat benetan datu interesgarriak eman zizkigutela hizlari izan zirenek.

Xabier Iriondo izan genuen lehena, *Hizkuntza eskubideen babes jurisdikzionala nazioarteko eta komunitateko ordenamenduetan* aztertu zuelarik. Datuen eta erudizioaren alarde bat egin zigula aitortzen dut, bai araudiaren aldetik, eta baita jurisprudentziaren aldetik ere, ikuspegi eder eta zabal bat eskaini baitzigun.

Gai honi dagokionez, sorpresa jaso nuen nire aldetik. Ondorio bezala, hizkuntzek babes jurisdikzionalik ez daukatela atera nuen. Nazioarteko agiri edo hitzarmenek, tratatzen dituzten kasu gehienetan —guztietan ez bada—, zeharka egiten dute. Babesa duena eta eskubide eta betebeharren subjektu dena pertsona da. Beharbada har daiteke giza eskubide bezala; giza eskubideren bat hizkuntza dela eta urratzen baldin bada, orduan hizkuntzak ere izango du babes jurisdikzionalik; baina ez hizkuntza izateagatik, pertsonari erreferentzia egiten diolako baizik. Beraz, hizkuntzak nazioarte edo estatuarte mailan babesik baldin badu, giza eskubideari loturik dagoelako da. Auzitegien babesa jasoko du baldin eta giza eskubideren bat hizkuntza dela medio urratzen baldin bada.

Bigarren ponentzian, *Hizkuntzaren Normalkuntza Justizia Administrazioan* azaldu

zigen Jaime Tapiak. Gure Autonomia Erkidegoa 1994an hasi zen euskalduntzen, Bizkaiko Abokatuen Kolegioak egin lanetatik abiatuta, baina bereziki 1996tik aurrera, orduan jaso baitziren gure Erkidego honetan Justizia arloan gai honi dagozkion transferentziak. Erdizka, hala ere. Lehenago transferitutakoak, eraikin, azpiegitura eta bitarteko material nahiz ekonomikoa esan ohi zaionari buruzko arloak izan ziren. Eta pertsonalari dagokionez, data horretan, soilik “personal al servicio de la Administración de Justicia” deritzon hori. Ez ditugu beraz transferentzia guztiak jaso, nahiz eta Estatuak dioen Gobernuak dituen transferentzia guztiak izango ditugula. Ez ditugu denak jaso, zeren delako “personal” hau ere, “transferitua” baino gehiago “deskonzentratua” izan da. “Cuerpo Nacional” izaten jarraitzen du, horrek daraman uniformizazioarekin. Gainera, gauzak argi utzi behar direnez gero, esan beharra daukat guk ez dugula ezer hirugarren botere horretaz. Gurean duguna ez da “gure” Botere Judiziala. Eta hor gabiltza boluntarismoz eta borondatezko jokaeraz. Hor dago Botere Judizialaren Lege Organikoa, euskara soilik meritu gisa hartuko dela diola; meritu den bitartean, ezer gutxi egin ahal izango da lehiaketa batean. Ondorioz, borondatezko harremanak gero eta zabal eta indartsuagoak dira justizia euskalduntzeko prozesu honetan, eta are aruntzago abiatu beharra dago. Nolanahi ere, ez zen argi ikusi boluntarismoaren oztopoa nola gaindi daitekeen. Arazoa, gainera, juridikoa baino gehiago, politikoa da. Hemen arazo politiko zenbait soluzio juridikoa eman nahirik gabiltza. Eta ez jaunak. Arazo politikoek erantzun politikoa behar dute, ez juridikoa. Soluzio politikoak gero juridikoki konkretatu eta gauzatu beharko dira, baina ez alderantziz.

Hirugarren ponentzia, Patxi Etxeberrriak emandakoa, *Euskaraz auzitaratzeko eskubidea*-ri buruzkoa izan zen. Eskubide hau, 1982ko azaroaren 24ko Euskararen Normalkuntzareako

Legean errekonozituta dago, eta nolabait baita LOPJren 231. artikuluan ere. Hiritarrok eskubidea dugu gure hizkuntza ofiziala erabiliz —“koofiziala” deitzen diote, nahiz eta Konstituzioak eta Estatutuak “ofizial” dioten— auzitegien aurrera joateko. Asuntua da hiritarren eskubide honek nolabaiteko berme edo garantia bat behar duela. Nola lortu hori? Beharbada ez da gaur ditugun instrumentu juridikoekin lortzen. Eta bien bitartean artekariekin, itzultzaileekin ari gara funtzionatzen. Itzultzaileek ez dela beharko dio 1982ko Legearen 9. artikulua, eta horrelako zerbait esaten da LOPJren 231.ean ere. Nik uste dut itzultzaileen tokia auzitegi eta epaitegietan dagoela, alderdietariko batek hizkuntza “koofizial” deitu dugun hori ez dakien kasuan, izan ere hiritarrok ez gaude hizkuntza koofiziala jakitera beharturik. Hortaz, batek bai badarabil eta besteak ez, orduan bai beharko dela itzultzailea derrigor, eta baita ere, adibidez, aurrean atzerritar bat daukagunean. Baina hortik kanpo, ez dut uste areto, auzitegi edo epaitegiari dagokionez zuzenean itzuli egin beharko litzatekeenik. Hori egitea diskriminatzea litzateke. Euskara Estatuaren Lege Ordenamenduan dago eta auzitegiak legea ezagutu eta bete egin behar du. Auzitegi, epaitegi edo areto hori nola euskaldundu da arazoa.